BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

665

8/2015 EBAZPENA, otsailaren 3koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Maxam, S.A. enpresak Galdakaon (Bizkaia) dituen instalazioetako Kanpoko Larrialdietako Plana onartzen duen Erabakia, Gobernu Kontseiluak hartutakoa, argitara ematea xedatzen duena.

2015eko otsailaren 3an egindako bileran, Gobernu Kontseiluak honako erabaki hau onartu zuen: Maxam, S.A. enpresak Galdakaon (Bizkaia) dituen instalazioetako Kanpoko Larrialdietako Plana onartzea, eta horri beharrezko publizitatea emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Maxam, S.A. enpresak Galdakaon (Bizkaia) dituen instalazioetako Kanpoko Larrialdietako Plana onartzeko den Erabakia, eranskinean jasotzen dena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 3a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN OTSAILAREN 3KO 8/2015 EBAZPENAREN ERANSKINA

Maxam, S.A. enpresak Galdakaon (Bizkaia) dituen instalazioetako Kanpo Larrialdietako Plana onartzen duen erabakia.

Larrialdiak kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 14.3 artikuluan xedatzen denez, plan bereziak egingo dira metodologia tekniko-zientifiko zehatza eskatzen duten arrisku zehatzei aurre egiteko, Babes Zibileko Oinarrizko Arauan jasotzen diren eta autonomia-erkidegoan eragina duten arriskuen kasuan batez ere, eta arriskuen analisiak emandako emaitzen arabera, betiere.

Plan horien artean daude, ondoko arauetan barne hartutako establezimenduentzat landu beharreko kanpoko larrialdi planak: 1254/1999 Errege Dekretua, uztailaren 16koa, substantzia arriskutsuak tarteko diren istripu larrien berezko arriskuen kontrol-neurriei buruzkoa; 1196/2003 Errege Dekretua, irailaren 19koa, istripu larrien aurrean egin beharreko kontrolerako eta planifikaziorako Babes Zibileko Oinarrizko Jarraibideak onartzekoa, eta 34/2001 Dekretua, otsailaren 20koa, substantzia arriskutsuak tarteko diren istripu larrien berezko arriskuen kontrol-neurriei dagokienez organo eskudunak zein diren zehazten duena.

Arau horien arabera, autonomia-erkidegoetako organo eskudunek, industrialarien laguntzarekin, Kanpoko Larrialdietako Plan bat prestatuko dute, gerta daitezkeen istripu larriak aurretik aztertu, sailkatu eta ebaluatu eta gero, horien ondorioak aurreikusteko, eta, hala dagokionean, arintzeko. Plan horrek ezarriko ditu, batetik, babes-neurri egokiak, beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak, eta, bestetik, esku hartu behar duten agintariak, organoak eta zerbitzuak koordinatzeko eskema.

Larrialdiei Aurregiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Kanpoko Larrialdietako Plan hau egin du, beste erakunde eta zerbitzu administratibo batzuekin batera. Euskadiko Babes Zibilerako Batzordeak horren aldeko txostena egin du 2014ko azaroaren 26an, eta Babes Zibilerako Batzorde Nazionalak homologatu egin du 2014ko abenduaren 3an.

Horrenbestez, Segurtasuneko sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak, aztertu eta gero, hau erabaki du

ERABAKIA

«Lehenengoa.– Maxam, S.A. enpresak Galdakaon (Bizkaia) dituen instalazioetako Kanpoko Larrialdietako Plana onartzea.

Bigarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak aginduko du erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea».